

## Euskal literatura eta modernismoa (1950-1964)

Txomin Peillen

Bizitu dudan garai batez eta gutxi edo asko ezagutu ditudan euskaltzaleez hitz egingo dizuet. Hamalau urte haietan hasi zen, haustura batekin, euskal literatura modernoa. Batzuek 1954. urtetik abiatzen dute belaunaldia, baina urte hura baino lehen, 1950. urtean, osoki euskaraz sortu bi aldizkarietan abiatu zen literatura eskandalagarri hori, horregatik erditze mingarria jasan zuen.

### Oztopoak

#### *Giroa.*

Nahiz iparraldean, nahiz hegoaldean elizak, indar handiz, kontrolatzen zuen herri pentsamendua: Bilboko ezker aldean txibatoek fabriketako langileak mezan ibiltzen zirenez zaintzera, zelatatzeraz zetozen; halaber herririk txikietan kontrolatuak ginen. Ez hitzez, ez idatziz ez zen modernismoa onartzen.

Orduko idazleak gu baino zaharragoak, Frantzian, Belgikan, Guatemalan, Mexikon, Uruguain eta Venezuelan, hots, erbestean bizi ziren. Idazle gehienak apaizak eta fraideak ziren. Batzuek bataiatu sakristia literatura erlijiozkoa zen, ezen euskaraz orduko eliza gizonak euskaldun baserri eta hiri txikiak mundutik zetozelako eta beren eginbidea betetzen zutelako erlijio gaiez euskaraz idatziz.

Erljiozko gai ez ziren liburuak baita itzulpenak, garai ilunetan eta gero, Ameriketara argitaratu ziren, batzuetan euskal etxe batek emanak edota Buenos Aireseko *Ekin* argitalpenak baina batik bat Mexikoko *Pizkundek* eginak. Aitor dezagun urte haietan praktikan gutxi idazten zutela, gure herri barruko elitea komertzioan edo industrian diru egiten baitzebil.

Euskadin, 1937. urtetik 1949. urteraino, «katakombetako urteetan», euskaraz predikatzea edo kalean hitz egitea ez zen zilegi izan. Trenean militante itxurako gizon batek 1953. ean oraindik gaztelaniaz berba egin nezan eskatu zidan eta nik pasaportearen erakutsiz hizkuntza hura ez nekiela adierazi nion.

Garai ilun hartan Hego Euskal Herrian, elizakoez gain, hiru liburu baizik ez ziren agertu, bertsolaritzaz bat, eta bi hizkuntzetan Azkueren *Euskal Herriaren Yakintza*. Ipar Euskal Herrian oraino hamabost bat urtez ez zen urtero lau-pabost liburu baino egin. Iparraldea lotan zegoen eta Felipe Oihanburu dantzariak liburu batean literatura idatzirik ez genuela behar bota zigun, bertsolaritza, kantua eta pastoralak nahikoak zirela euskal kulturari, aski onartua zen.

## *Zentsura.*

Ez zaigu ahaztu behar 1950. urteraino Hego Euskal Herrian debekatua zela euskal liburua, nekez abiatu zela, Zarautzeko *Itxaropena* argitaletxearekin. Jakina, « censura previa » delakotik igaro behar genuen eta lan kriptikoak idatzi, gauzak, jendeak eta gertaerak beren benetako izenaz aipatu gabe.

Itxaropena argitaletxeko Xabier Untzurruntzaga zaharrak kontatu zigun argitaratu nahi izan zuenean Jon Etxaideren *Alos Torrea*, lehen eleberri horrek Gipuzkoako zentsura jaso zuela, eta Zarautzeko inprimategia bisitatzera etorri madrildar batek berehala Madrildik lortu ziola baimena.

Aurre zentsura hori jasan zuen Davant zuberotarrak idatzi euskarazko nekazaritza liburuak. Argi zen guretzat Ion Onatibiak egin zion marxista salaketak ez ziola lagundu.

Iparraldean ez bazen zentsura previarik eta elizaren argitalpen txikiak baziren, naski, Jon Mirande ikonoklastaren idazlanak ez zituzten emango, gehiago dena haren kontrako zer egin zuten ikusiko dugu. Beraz Francoren eskupekoak ez ziren aski oztopo izan, euskaltzaleak izan genituen.

## *Irakurleak*

Ezin da esan euskaldun guztiek beren hizkuntzan irakurtzen ez zekitenik, Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan kristau dotrinarekin askok irakurtzen eta idazten ikasten zuten, baina zer irakurketa zuten: *Herria* orain baino klerikalago zena eta eliza liburuak. Ez zen irakurtzeko girorik, irakurle gehienek ez baitzuten ez gaztelaniaz, ez frantsesez egunkariez kanpo irakurtzen. Halere, Hego Euskal Herrian euskal liburuek abertzale erosketa bazuten. Irakurriak ote?

## *Aldizkariak.*

Herri askotan legez aldizkariak gehiago irakurriak ziren, eta eliza gizonak euskaraz beren barnekoak bazituzten: karmeldarren *Karmel*, frantziskotarren *Gure Izarra*, eta benediktinoen *Jaunaren Deia*. Geroago eliza berri baten babespean sortuko dira *Jakin*, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* profanoak.

Literatura eta saiakera euskarazko lehen bi aldizkariak 1950. urteetan agertu ziren eta hor izan genituen bi bultzari, Koldo Mitxelena, Donostiako *Egan* aldizkarian eta Jokin Zaitegi Guatemalako eta Baionako *Euzko Gogoarekin*. Halere, zegoeneko, Jon Mirandereren eskaintza bide urratzaile polemikoak Buenos Aireseko *Gernika* aldizkarian emanak zituen.

## *Idazleak eta politika;*

Gerra aurrean bezala, urte haietan alderdi guztietako euskaltzaleak izan genituen (Txomin Agirre, Antonio Arrue eta Jose Maria Lojendio eta Ignacio Maria Etxaide karlistak) baina gerra ondoren gehienak abertzale edo ezkerreko pentsamenduko atera ziren. (Ezker Abertzale, Sozialista, Komunista) Marxismoa apaiztegietan sartu eta eliza gizon frankok eliza utzi zuten.

## **Modernismoaren lehen idazlea. Jon Mirande Aiphasorho (1925-1972)**

Oraindik, kostunbrismoan, folklorismoan eta kristau literaturarekin bizi zen gure literaturgintzan, Mirande eskandalu hutsa izan zen, kostunbrismoaren molde zaharra hautsi zuen. Lehenbizikoa izan zen moralkeriarik gabe bere prosan eta olerkietan aurretik, inork, inoiz euskaraz erabili gabeko gaiak sartuz: emagaldua, lesbianak, nekrofiloa, pederastak, pedofiloak, alkoholikoak eta hiltzaileak olerkietan eta ipuinetan antiheroi marjinetuz idatzi zuelako.

1947. urtetik 1953. urteraino idatzi zituen bere olerki ausartak, baina Euskadiko Irrati klandestinoan eta *Euzko-Deyan* esan zuenean bilduman olerki erotikoak ere izango zirela, Pierre Lafitte apaiz euskaltzain sasi liberalak euskal literaturak ez zuela horrelako beharrik idatzi zuen, erotikaz ez omen zelako euskal literaturan idatzi; geroago René Lafon euskal katedratikoak erantzun zion ezin zela bakarrik elizakoa izan euskara, Etxeparek, Oihenartek eta herri literaturak erotika gai horiek erabili zituztela. Betiko Lafitte guruak Miranderen aurkako propaganda, *Herria*, apaizen euskal astekarian bideratu zuen *Eskuaraz eta lizunkeriaz* artikuluekin betiko argudioarekin atera olerki horiek “gazteak ustelduko” zituztela. Mirandek erantzun zion nola nahi frantsesez edo gaztelaniaz jadanik gazteek horrelako “itsuskeriak”, ikasten zituztela.

Miranderengatik *Euzko Deya* aldizkaria mehatxatu zuen Vatikanoren Indexean sartzea Chabagno misiolariak. Hegoaldean, urte bat lehenago, aita Mokorroa joan zen apezpikuaren ikustera esanaz Jon Miranderen lanak Espainian debekatu behar zirela, gotzain argiak erantzun zion debekatzeak hobeki salaraziko zuela. Miranderi egin oztopo guztiek erradikalago eta eskandaluzaleago bilakatu zuten, Kristoren aurkako poema, baita eliza katolikoa euskaldunentzat kaltegarria izan zela idazteraino. Mirandek, apur batez, Andima Ibinagabeitia, Jon Etxaide eta Luis Mitxelenak zirikatutik, bere politika bakartasunaren gainetik, euskal idazle izaten jarraitu zuen.

Apaizen eraso horri erantzun zion Mirandek Kristoren kontrako olerkiaz gain, sorginen aldeko poema batekin, eta pagano olerkiekin, euskal mundu zurian, tinta gorri eta beltzak isuriz. Bestalde, heriotzaz lau olerki idatziko zituen (Soneto, Aineza gal bizia, Nil Igitur mors est eta Merry Christmas); argi dago hasieratik bere buruaren hiltzea gogoan zuela, bere lehen euskal olerkia 1947an suizidioaren aldeko *Soneto* idatzi eta beste bi depresio eta saioaren ondotik 1972an bere buruaren hiltzea erdietsi baitzuen. Sonetoa, gipuzkera osotuan egina, bere barne errimekin Miranderen ederretarik bat.

SONETO  
(1947)

Asperduraz urturik txo! nire biotza  
Bizi ontako minak eta negarrak aztu  
Erio goxoak danak eramango ditu  
Oetzat izango det biar buztin otza.

Gizonak zuen artean bizitu naiz arrotz  
Maitatu nituenak ez naute maitatu  
Adiskide onenak egon dira mutu  
Alferretan diet egin zeruei otoitza .

Ez abesti latinik ez ur bedeinkatu apaiz  
Ez garbairik anaiak naizenean hilgo  
Anaiaren garbaia gezurra baita maiz.

Lurraren magalean aizenean sartuko  
Alaitu gorputza! An egongo baiaiz  
Naiz uda naiz negu, bakean betiko.

Olerki hau 1988an arkitu nuen 1948. urtean euskaraz idatzi gutun batean eta 1989 urtean Baionan Euskaltzaindiaren aurrean, sarrera hitzaldian, argitara gabeko olerkia lehenbizikoz irakurri.

Miranderen, *Haur Besoetakoa*, eleberria, idazlea nazista izanik ere, Aresti komunistak bizi zegoeno argitaratu zion; hil baino urte bat lehenago, hamabi urteren buruan, Mirande bere lehen liburua ikusi zuen. Haren olerki bilduma, olerkaria hil eta gero hogeita lau urteren buruan eman zen *Orhoituz* izenarekin.

*Zuberotar kultura.* Miranderen ulertzeko lehenik ni bezala zuberotar jatorrizkoa zela jakin behar da eta heterodoxia gure herri txikiaren ohitura delako; sinesgaiztasun hori, ez dugu auzo ibar biarnes edo manexengandik hartu, baina protestanteen garaian izandako gatazkek, Eliza kordokarazi zutelako.

Zuberotar heterodoxoak aspaldidanik izan dira. Hamazazpigarren mendean Oihenarteri “mauvais Basque” motea jarri zioten; Egiategik XVIII. mendean (1780) eliza gogorki kritikatu zuen, protestanteen alde idatzi, gerraren aurka ere bai. Hemeretzigarren mendean, 1848. urtean Agosti Chaho/Xaho

ezkertiarra, hauteskunde kanpainan gaixotu ez balitz, lehen ezkerreko diputatua izango zen. Hemeretzigarren mende erditan hasita hauteskunde bakoitzean, botoen erdiak ezkerreko eta beste erdiak eskumara. Chaho/ Xaho Euskal Herriko agintarien artean lehena izan zen elizakoak ukatu eta hilarri ez kristaua eskatu zuena. Mirandek Zuberoatik zerbait hartu zuen, gurasoak, biak horkoak izan zirelako.

Mirande, Parisen jaio eta Parisen hil zelako, frantses literaturarekin lotu nahi dutenek ez dituzte haren olerkien egiturak aztertu, zeren idazleak berak esan baitzuen ingeles olerkaritza zuela eredu; halaber prosan irlandarrak (Shean O'Ceasy, James Joyce, John Milton Singh); aleman filosofoak eta iparamerikarrak miresten zituen. Gainera badakigu, berak idatzirik, eta Joxe Azurmendik ikerturik, hiru pentsalarik beregan eragina izan zutela. Schopenhauer, Spengler, Nietzsche, dakidanez ez ziren frantsesak.

Hainbeste hizkuntza zekiularik, hainbeste irakurri, ez zuen nahi izan unibertsitate ikasketarik egin, "astolarruen" diplomaren etsai zen eta Nietscherengandik ikasi meritokraziaren alde; behin bere kontra esana erakutsi nion, munduan zehar zituen linguista gutunkideek haren meritokrazia, edo jakituria ezaguturik ere, denak unibertsitarioak zirela. Frantses literaturako idazlanik ez zuen sekulan itzuli ez eta aipatu, nahiz beste europarren gisa horren eragin apur bat izan. Mirande osoki frantses literaturarekin lotzen dutenek beren espainol betaurrekoak kendu behar lituzkete. Hil eta hogeitun urteren buruan *Igela* heterodoxoren aldizkaria irakurtzeak gazte asko Mirandezale bilakatu zituen eta haren olerkiek eta eleberriak berrargitalpenak ezagutu. Parisen sortu nuen *Igela* aldizkari horretan (1960-1962) jarraitu zuen apur bat Jon Mirandek bere lanak ezin zirela argitaratu konturatu zenean.

Hamalaukada hartan euskaraz idazten hasi genuenok hizkuntza arazoak izan genituen, Ibinagabeitiak bultzaturik, gipuzkera osotuan Mirandek eta biok idaztea erabaki genuen, gero une laburrean Arestik, Krutwig, Villasantek bultzaturik biok lan batzuk lapurtar klasikoan eman eta gero euskara batura igaro. Gipuzkera osotuaren aldekoek ez zuten horrelako malgutasuna erakutsi.

Zuberotarrok ikusi baikenuen Iparraldeko nafar-lapurdiara batu horretan ez zutela lapurtera gutxi eta zubererarik batere onartu, ez genuen manex hizkuntza horretan idatzi. Zuberotarrok gehienok antzerkiak eta bertsoak zubereraz idatzi genituen, Lhandek, Mirandek eta hirurok gipuzkeraz eta euskara batuan Junes Casenave fraideak, Jean Louis Davant, Allande Sokarros eta laurok.

Prosazko lanen artean eliza eta orduko abertzaleak kritikatu idatzi zuen Mirandek "*Euskaldungoaren etsaiak*", "*Abertzaletasunaren inguruan*" Buenos Aireseko Gernikan, eta borroka armatura dei bat "*Euskal gudu zalduntza baten beharkiaz*" (aurretik, 1948an gutun batean manex bati eskainia), baita folklorismoaren aurkako artikuluak frantsesez eta euskaraz eman.

Ez bazuen Mirandek hizkuntzan iraultzarik egin, gaietan eta haien erabileran lehen modernista dugu.

## **Jose Luis Alvarez Enparanza “Txillardegi”**

Donostian, 1929. urtean jaio eta ingeniari ikasketa eginik, bigarren kaletarra, bigarren euskaldun berria dugu, hausturako bigarren idazlea. Oraindik bizi dela eta garai hartako idazle handien artean gazteei jakinarazi behar zaie. Izan ere, Txillardegik garai hartan bere bi eleberriak, eman zizkigunean, *Leturiaren egunkari ezkutua* (1959), eta *Peru Leartzako* (1960) argitaratu zituenean integristen kritika eta irain gogorrak jasan zituen, hona adibidez Jakin 5-6 zenbakietan Orixek idatzia:

*Nere kontzientziak agintzen dit isilik ez egotea liburu onek gazteen artean egin dezakeen kalteagatik. Ez dugu horrelako bearrik.*

Oraingo euskal kritika gehienarentzat euskal literatura ”moderno” 1970. urtetik aurrera hasten da. Hemen nago fundatzaileen alde berba egiteko. Txillardegik hitzez, idatziz, eta ekintzaz, sarritan, Miranderen gisa pentsatu zuen kultura borroka ez zela nahikoa, politikazkoa behar zela. Horrela, luzaro azaldu zion Joxean Agirreri. Txillardegi antifrankista borrokan gazterik hasi, *Ekin* taldean sartu zen, EAJren apatia inarrosteko; bigarren lehendakari izan behar zuen Francisco Landaburuk begi onez ikusi zuen, baina gazterik hil zen. Txillardegi ETako lehenetan sartu zen eta geroago Madrilen Herri Batasuneko senatari izan. Bere ideia nagusia zen diktatura gabe demokrazia eta sozialismoa eraikitzea. Bere eta besteen politika bidez eleberri bat baizik ez zuen idatzi *Ezkitxu*. Baina artikuluetan eta elkarrizketetan bere bizitzako eta politikazko gorabeherak azaldu.

Nahiz ez zen frantsesa, ez eta Parisen jaioa, Camus eta Sartrearen eragina aitortu zuen. Literatura eta hizkuntza munduan lan ederra egin zuen, lehenik euskara batuaren sorreran sartu, eta existenzialismoaren pentsamendu intimista ezagutarazi. Miranderen pertsonaiak marjinatuak, bazterkinak baldin baziren Txillardegirenak intelektual edo burges antiheroikak izango dira, beren barne konfliktua bizi dutenak. Harekin kostunbrismo zaharkituak bigarren zaflada hartu zuen.

Haren hizkuntza, Mitxelenarena bezala, erdibidekoa da ez da euskaniola ez eta sabinola, beraz ez Mirande haina garbizale. Nahiz ez zuen berak euskal literaturan lehen aldiko erabili ia sistematikoki barne hizketak eta bakar hizketak Txillardegiren idatz tankera nabarmentzen dute.

Jon Mirande bezala bere politika iritziengatik edo, horrelako jakitun on eta idazle handia ez zen Euskaltzaindian sartu. Erbestetik itzuli zenean Goio

Monrealek eraiki unibertsitatean 1980an hasi zen linguistika eta literatura irakasten.

Txillardegiren eragina geroko idazleetan agertuko da, eta aztertu behar liteke. Ez zuen idazleak Mirandek bezainbeste eskandalu egin eta Euskal Herrian bizi zegoeno, askoz errazago argitaratu. Txillardegi da, nire belaunaldikoetan, gutxienik ezagutu dudana, bera herri batetik bestera erbestean baitzebilen ihesi. Behin Parisen bretoi kultura etxe batean elkar ikusi behar genuen eta ez zen etorri. Halatan ere Leturia eta Peru Leartzakoaren alde idatzi nuen Pariseko *Elgar* aldizkaritxoan. Azkenean, Euskal Herrian 1978. urtetik goiti finkatu zenean, gehiago ikusi nuen.

## Gabriel Aresti Segurola (1933-1975)

Hirugarren molde hauslea. Hau ere kaletarra, hau ere euskaldun berria, Bilbon jaioa. Idazten hasi zenean beste bien gisa ez zuen unibertsitate ikasketarik egin, ofizioz kontable eta beste biak bezala ez zuen literatura ikasketarik egin; beraz hirugarren autodidakta, eta niretzat XX. mendeko azken berrogeita hamar urtetako hiru idazle handien artean jar genezake.

Behin, 1953an ezagutu nuen Gabrielelek esan zidan "ez banu Jon Miranderen lanik irakurri ez nuen inoiz euskaraz idatziko. "Mirande eta Txillardegi garbiki esateko ez ziren elizkoiak; laiko eta apaiz zenbaiten artean euskal literatura bere sakristia usaina kendu behar ziola bultzatzailetarik izan zen.

Politikaren aldetik beste saiakerak ezagunago badira niretzat literatura hutsaren aldetik *Maldan Behera* da olerkariaren obra nagusia: hor erakusten du aurreko beste olerkariak ezagutu dituela. Lehen saileko olerkian gain behera doa olerkaria, eta olerki bakoitzak badu izen sinbolikoa itzultzaileek zoritxarrez gaizki itzuliak, ezen *Iratze Ederra* ez da "en el hermoso helechal" Iratzeder olerkariaren aipamena baizik, halaber *Loramendian* ez da "en un monte de flores" Loramendi olerkariaren omenez baizik, zer esanik *Lizardia* ez da "fresnal", baina ezagutzen dugun gerra aurreko poeta handia..

Esan behar olerki handi horren bigaren sailean olerkaria maldan gora doala eta agian, hori izenburuan agertu behar zukeela "Maldan behera eta Maldan gora." Nola nahi, orduko, eta arnas luzeko olerki ederrena dugu Orixeren *Euskaldunak* kostunbrista eta folklorikoa, lurperatzen duena. Idaztinkeraren aldetik metrikaz aski klasikoa da, baina askok koraza baten antzean ikusten duten egituran bere kezka eta haserreak azaltzen jakin du. Bestalde kontablearen joera hor agertzen da ezen lehen atalean, bezainbeste bertso badago bigarrean eta bien artean, erditan, malda zuloan olerki batean, olerkari gurutziltzatua, idazlea, agertzen da.

Aresti, marxismoaren eta Blas de Oteroren eraginez herri xehea bere olerkietan sartu zuen, gaietan proletarioak agertzen direlarik. Hizkuntzaren aldetik uste ukan zuen Bilbon eta Bizkaian egiten zen euskainola euskal literaturan sartu behar zela jendeek uler zezaten. Hizketa hori fakultatean ikasleekin ikertu genuen *Gorbeiaiko Artzainen esaundak*, “euskara ona” baserrian ikasi behar delako diotenen aurka, testu haietan aditz guztiak, ukan eta izan laguntzaileak izan ezik, gaztelaniaz ziren eta hiztegi ez hain gutxi hizkuntza inperial horretakoak.

Bertsolarien hizkera interesgarriago zitzaion eta Arestik Aita Antonio Zabala ezagutu zuenean, idatzi zidan gaztelaniazko eskutitz bakarrean honela euskaraz ematen dizuet: “berdin izugarritan buruargia den Aita Zabalak bertsolariez berba egin zigun hain argia non ez dirudin ez jesuita ez apaiz denik “

Bigarren aldiko liburu populista eta politikazko ziren horik (*Euskal Harria, Harri eta Herri, Harrizko herri hau*) ederki saldu ziren, beharbada gaztelaniazko itzulpena zeramatelako. Arestik horrela eginaz erdibide bat hartu zuen, ezen garai hartan askok zioten herri xehe eta proletariatoari literaturaren irritsa emateko hizkuntza murrizta erabili behar zela; idazle batzuk ere gaztelania soilez idazten hasi ziren alegia proletariatoaren hizkuntza zela eta euskara burgesena: dakidanez gaztelaniazale horien lumapean, proiektu kulturarik ez da garatu.

Gaur ere euskal literaturari egozten zaion akats handiena herri xehea ez duela ukitzen, horrelakoak esaten dira alemana, frantsesa dela-eta.

Ez dut esan nahi euskal idazleak ez duela gaztelaniaz idatzi behar. Aresti konturatu zenean gaztelania nekiela, lauzpabost olerki hizkuntza hartan idatziak bidali nizkion, eta geroztik bi liburu gaztelaniaz idatzi. Horregatik, bere biziko gutun luzeena gaztelaniaz idatzi zidan Bilboko urte hartako kultura giroa ezagutarazteko; haren obra osoetan irakur daiteke, baina hona zatiak

Bilbao 3 de febrero de 1959 a las 16.30 de la tarde

(...)

En fin creo que tienen razón los que dicen que soy un poco burutik. Pero, cuando miro a mi alrededor creo que llegué un poco tarde al reparto y mi ración de folly ha sido escasa comparada con la que les tocó en suerte a muchas otras serenísimas personas.

Aquí me tienes en la oficina produciendo para una España Grande. Y es que los españoles poseemos voluntad de imperio. Hay que producir, meter diariamente el cuarto de jornada (es decir trabajar diez horas) y reconstruir la nación, macerada por el contubernio rojo separatista.

(...)



He terminado de rumiar el *Ancia* de Blas de Otero. Es un coloso este Otero, el mejor poeta castellano desde que murió Salinas. En Bilbao se han vendido 25 ejemplares y seguramente tantos porque Otero es bilbaino : 10 ejemplares las Bibliotecas, 10 los amigos de Otero, uno yo, con lo cual quedan 4 aficionados a la poesía en una ciudad de 400.000 habitantes, uno de cada 100.000.

(...)

Es una gloria chico, San Mamés tiene capacidad para 50.000 personas y si el domingo hubieran podido entrar 200.000 también se hubiera llenado. O sea que uno de cada dos bilbainos (contando niños, ancianos e impedidos) es aficionado al fútbol. ¡Que encanto de ciudad!

Gutun luze horretan agertzen da hainbeste aldatu ez den Bilboko « kultura » giroa, baita Arestiren ideiak kulturari buruz

Gaztelania bai ederki zekiala, frantsesa ere ongi baina Gabriel Arestiren ohoretan idatzi olerkia euskaraz eman nuen. Bera hil baino urte bat lehen Arestik Eara gonbidatu ninduen, alegia bien artean antzerki bat idatziko genuela, hark baitzekien zer zen antzerkia eta nik irudimena ekarriko nuela: gaitzak ez zuen nahi azken anai bilera hori eduki genezan.

## Jon Etxaide Itharte (1920-1998)

Haren bizitza hitsean Donostian jaio laugarren kaletar euskaldun zahar horrek integrista heziketa izan zuen *Etxaide jauna gure aita* liburuan kontatzen duena. Etxaide XV-XVI mendeko Euskal Herriaren historiak kezkatzen zuen eta euskaraz eleberri historikoa berritu zuen. Kristau on horrentzat bekatu handiena zen gerra eta anaiarteko borroka *Gorrotoa lege* eleberrian Oinaztarrak eta Ganboarrak, gero bi antzerkietan *Berterretxen* hilketa eta *Amaiurko* gertaerak. *Alos Torrea* berdin Erdi Aroko giroan gudari jauntxo baten ankertasun eta indarkeria bekatuak aipatzen ditu. Itsas gizonen zoritxarrez *Markesaren alaba* antzerkia eman, baita Barojagandik itzuli zigun *Itsasoan Laño dago* (Las inquietudes de Shanti Andia)

Topet Etxahunen bizitza tragikoak eta haren bertsoak liluratua izan zen. Etxahunen hizkuntza apur bat zaila izanki zuberotarrentzat, areago euskaldun gehientzat bertsoak lehenik gipuzkeraz eman zituen Jon Miranderen laguntzarekin gero euskara batuan eta gaztelaniazko itzulpenekin, zatika, *Boletín de la Real Sociedad* batzuetan, nire laguntza txikiarekin.

Jon Etxaidek Donostiari ihesi egiten zion, eta andrearekin mendian ibiltzea gogoko zuen; Zuberoan txit laket zelako, bederatzi urtez gure Santa Graziko etxea prestatu genion. Depresioa zen Mirande bezala eta elkarrekin batzuetan astebete pasatzen zuten Donostian. *Habe* aldizkarian egin zioten elkarrizketan esan zuen „kristau izan ez banintz nire burua hilgo nuen” Haren obra ezagutaraztea eta berriz argitaraztea ez liteke gaizki.

## **Juan San Martin Ortiz de Zarate “Otsalar“(1922-2005)**

Idazle polifazetiko hau euskaldun zaharra Eibarren jaio zen fabrika langile sendian eta bera lan teknikoetan abiatu, gero komertzialetan. Haren obrak poesia, etnologia eta arteaz artikulua izan ziren. Bere literatura obraren zabalkundeari ez zion garrantzirik eman, gaur egiten ez den bezala. Bere poesia filosofiazkoa da baina klasikoa. Bestalde kostunbrismoa bazter etnologian herri literatura bilketa egin zuen. Kultura gaiak aztertzen Egan, Hoja del Lunes, Diario Vasco del Lunes aldizkarietan jarduten zuen, Euskaltzaindian egin lan isilak kontatu gabe.

Brecht, Ghelderode eta Espriu itzuli zituen, baita besteen obrekin kezkatuago eta *Uhin berri* garaiko olerkariak (1960-1970) eta *Hegatsez* prosazkoak antologia bidez ezagutarazi. Arteaz eta batik bat arkitekturaz zalea, euskaraz eman zuen gai horretaz lehen liburua *Euskal artea* (1974)

Beharbada, haren euskaltzale lan handiena izan zen euskararen irakastea, besteak idaztera zirikatzea. Ibinagabeitiaren gisa San Martinek gaitzesten zituenak, abertzaleen euskararenganako ezaxola eta gizartean sartzen ari zen berekoikeria eta indibidualismoa. Hori *Ararteko* izan zenean idatzi zigun. Agian, San Martin hobekienik definitzen zuena bere bertso bat da, gaztelaniara berak itzulia bildu dudana:

La nave de la razón va  
Adelante con esfuerzo  
Lleva en su proa  
Las viejas ideas.

## **Koldo Mixelena Elissalt (1915-1987)**

Bai merezi zuen Donostiako kultur etxe hoberenaren izena ematea. Errenterian jaioa eta bi bider espetxean egona, behin gerra zibilean harrapatua, eta beste behin geroagoko erresistentzia ibilerengatik. Orain arte dakidanez inor ez da konturatu bere garai horretaz idatzi zuela, Elizalde amaren izenaz sinatuz. Idatzi zuena presondegian, behin kontatu zigun eta konturatu naiz aipatzen diren urteak eta bi egonaldian kointzidentzian daudela. Latinezko aipamenen egiteko ohitura testuan nabarmen dela; Madrilen bizi zenean, sarritan, ateratzen zituen lagun artean latin aforismoak eta beti beltzez jantzia zelako batzuek uste zuten apaiza zela.

Bere kartzelaldiaz baliatu zen ikasketak jarraitzeko, batez ere filologia erromanikoan, kanpotar hizkuntzen irakurtzen ikasteko eta lehen euskal testu

hori idazteko. Euskalari eta hizkuntza erromanikoetan jakituna izanik Parisen Sorbonnera irakastera etorri zen eta orduan, haren klasetan edo etxean, asko ikasi nuen. Koldo Mitxelena, Aresti eta Txillardegirekin euskara batuaren langile sutsua izan zen.

Niretzat bi garrantzi izan zituen Mixelenak, geroztik inork haren lekua hartu ez duelarik, lehenik nire lehen lanen kritika zehatza egiten zidalako, bigarrenik hizkuntza eredu bat ematen. Oroitzen naiz zer atseginekin *Egan* jasotzen genuen 1950tik aurrera eta batzuetan aldizkari horretan idazten frankisten zentsura beti gogoan, noski.

Bere garaiko askoren moduan gauza batzuetan uzkur zegoen; harekin eduki nuen azken hizketa Udako Unibertsitate batean izan zen, berak ziola, euskara bakarrik literaturarako landu behar zela eta ez jakintza hiztegien sortzen denborarik galdu; erantzun nion hala egin zela hiltzen ari ziren gaskoiera eta irlanderekin. UZEIekoekin eztabaida luzea izan zuen. Honela, artikulua euskaraz berein idazten bazituen eta liburuak betetzekoak bildu badira, liburuak gaztelaniaz eman zituen. *Textos arcaicos vascos* eta *Fonética Histórica Vasca*; ezin diogu bekatutzat egotzi ezen orain Euskaltzaindian dauden batzuk honela portatzen direlako, baita artikulua gehienak erdaratan idazten, nahiz garaiak ez duen hori agintzen. Koldo Mitxelena nahikoa eman du euskarari eta euskal idazleei baina gaur ikusten ditut unibertsitario zenbait erdaraz idazten beren karrerarako probetxugarri izan dadin. Horiek, maiz, euskarazko postuak agertu zirenean, euskaltzale baino gehiago euskalari egin ziren, horiek dira laketago erdaratan hitz egiten euskaraz baino.

## **Andima Ibinagabeitia (1907-1967)**

Mitxelenarekin batean, oztopo eta urruntasunaren gainetik, euskaraz idaztera bultzatu eta zirikatu ninduen Elantxoben jaio euskaldun zahar euskaltzale kartsu eta sutsu hori izan zen. Parisen lau urtez ezagutu nuen eta hark Mirande ezagutarazi. Euzko Gogoarako euskal lanak biltzen zituen eta zioen eskandalagarri izan arren euskal literaturak gai guztiak ukitu behar zituela, baina hortik kanpo jakintzarako gure hizkuntza taiutu.

Gero, bere bizitza ibiltaria jarraituz, Andima adiskidea lehenik Guatemalara eta Venezuelara joan zen. Mirande idazle egin zuen gizona izan zen, gogoz baino diziplinaz gipuzkera osotuan, idazten zuen bizkaitarra.

Ibinagabeitiak idazle zaharrenengandik biltzen zituen esaera eta euskal berbak hizkuntza aberastu nahiz. Ez zen euskara batura jarri baina itzultzailea izan zen bere lagun zen Jokin Zaitegi jesuitarekin batean. Biologiarekin interesatua Virgilioren *Unai kantak*, *Eneida*, eta *Ars amandi* obren itzulpenak eman zizkigun. Zaitegi greziera hizkuntzan jakitun handia baldin bazen Andima

latinzalea genuen; hori ez da harritzekoa gure elantxobetar adiskidea jesuitetan ikasia baitzen eta bezperan baizik apaizteko ukoa eman.

Andimaren amorru handiena euskararenganako abertzaleen ezaxola zen, eta Caracasko Euskal Etxea Gazteletxea bataiatu zuen. Europara itzultzeko unean eta irakasle postu bat aurkitu niolarik hil zen.

## **Jokin Zaitegi Plazaola (1906-1979)**

Arrasaten jaioa. Euskal literaturan nabarmenduko diren jesuita askoren gisa Oraingo eta Antzinako literatura klasikoak sakonki ezagutzen zituen. Beharbada, Greziako idazleen ereduak larregi ukiturik bere *Goldaketan* olerki bilduma ez da erakargarria, nahiz bertsoen artean haren kezkek agertu. Ez zen ez modernismoan ez eta euskara batuan idazten ibili. Ekintza gizon Aita Zaitegi jesuitak Guatemala-ciudad delakoan Lardizabal lizeoa eraiki zuen.

Jokin Zaitegik guretzat garrantzia izan zuen *Euzko-Gogoak* 1950-1962 urteraino, *Eganen* moduan, modernismoari literatura eta saiakerari ireki zuelako, denbora berean moda zaharreko gerrate aurreko idazleak baztertu gabe. Parisen eduki genuen Congreso Mundial Vasco horretara agertu zen 1956an eta Sorbonneko euskaldun irakasle batekin eztabaida eduki: euskara unibertsitaterako bai ala ez, eta zer hiztegi sortu ala mailegatu?

Kongresu hartan ikastola klandestinoen andre handia ezagutu nuen: Elbira Zipitria donostiarra. Harekin berbaldi luze bat izan genuen, parrez Zaitegi entzule: hark zion ordurako bere guraso jatorrak euskal kultura hutsean bizi zirela bi libururekin; biek Olabideren Biblia irakurtzen zutelako. Olabideen iztegirik gabe nola ulertu zezaketen euskaldun gehienentzat euskal kimia hutsa zelarik? gainera Biblia ez zen euskalduna, israeldarra baizik, gaineratu nion. Ihardetsi zidan euskaraz izateak euskal egiten zuela. Galdetu zion, beste lagun batek, Marxen Kapitala euskarara itzulia balitz euskal kultura izango ote zen? Hark ezetz. Bestalde aita-amek Orixeren *Euskaldunak* irakurriz (kaletar izan arren) lan folkloriko hori zutela eredu. Erantzun nion ez zela herri kultura hori euskaldunen monopolioa Europa guztian ohitura horietarik asko, bizi zirautela. Denetarik behar da baina Andre Handia eta kementsua izan zen, etxean Donostian lehen ikastola abiatu zuenean.

Euzko Gogo Baionara etorri zenean Ameriketara zeukan askatasuna galdu zuen, eta jesuita nagusi batzuekin eduki zituen harremanengatik, lauzpabost urteez hil arte Konpainia utzirik Jokin Zaitegi Arrasaten etxera itzuli zen.

## **Beste zenbait**

### *Kantutik idaztera*

Belaunaldi horren azkenean geroago olerkari agertuko ziren hiru kantari, kantu egileek *Ez dok Amairu* talde sortu zuten eta horiek bizitzen eta idazten jarraitzen dute: Jose Anton Artze, Jose Angel Irigarai, eta Xabier Lete.

### *Eliza gizon askeak.*

Herrixka askotan parrokoek, prakadun integristekin, pentsamendua kontrolatzen bazuten, Zaitegiren gisako eliza gizon askeak baziren, bazen besterik, batik bat olerkarien artean, hala nola Salvatore Mitxelena, Nemesio Etxaniz, Bitoriano Gandiaga, Iparraldeko Iratzeder, Joan Mari Lekuona, Prakadunen eta beste literaturen eragina ezagutzen bazaie, berek olerkari profanoetan eragina eduki zuten. Esan behar da hurrengo belaunaldian laster eliza utzi eliza gizonak izango direla, euskal idazle onak agertuko direnak.

## **Federiko Krutwig Sagredo (1921-1998)**

Aita aleman eta ama jatorriz italiar judu bat zenaren seme Bilbon jaio zen. Aita aberatsa izanki Federiko kulturari eman zen indar guztiz. Parisen 1957. urtean ezagutu nuen eta ekonomiari buruzko, Congreso Mundialean bildu dokumentu guztiak eman nizkion.

Nahiz antisemita izan Mirande Federikorekin Greziaren eta Alemaniaren mirespenean elkartu ziren. Mirandek inprimategia lortu eta bretoi nazionalista teorilari batzuekin harremanetan jarri. Hortik atera zen gaztelaniazko *Vasconia*, iraultza eta marxismoa eskaintzen zituenak; horregatik *Krut (Txof) wig* izendatu zuten batzuek. Berak Euskaltzaindiko beste lagunen artean aitortu zidan ez zuela gehiago marxismoagan sinesten, ETArek aita espiritualala izan zela eta sinestearekin batean semea utz daitekeela, aldiz Txillardegi odolezko aita izanki ezin zuela bere odolezko semea ukatu.

Krutwig pertsonaia bitxia zen: astoak ziren, alemanera eta greziera ezagutzen ez zuten intelektualak (eta Mirandek bazekizkin), halere euskarak bere leku handia izan du haren bizitzan; gaztelaniaz hitz egiten zuen Euskaltzaindian euskararen erabilerara igaroarazi zuen baina euskaltzain sarrera hitzaldian frankismoren kultura zapalkuntza aipatu baitzuen, exiliatu zen. Baionan ere nahigabean edo hala nahiz, euskaldun kanoniko mingain luze batek frantsesei

**jakinarazirik isilpeko politikan zebilela, frantsesek Belgikara kanporatu zuten eta han ezkondu zen.**

**Bizkaiara itzul eta, Bilbon greziazale talde bat bildu zuen eta idatzi dituen lau eleberriak nekez irakur daitezke grezierazko filosofia hiztegia jakin gabe. Ez dut ezagutzen European inor hala ibili denik. Greziera klasikoaren akademiakoa izatea bere aintza handiena izan zen. Hil ondoren, hautsen erdiak Greziako itsas uretan aurtiki ziren.**

*Eta neuk zer?*

**Nahiz etxean zuberera entzun eta ulertu, hamabost urteekin baizik ez nintzen euskaraz hitz egiten hasi eta euskaldun berritu lanarekin eta Ibinagabeitiak bultzaturik aldizkarietan: *Gernikan, Eganen, Euzko Gogoan* ipuin 1950. urtean argitaratzen hasi nintzen. Nire lehen eleberria 1953. urtean idatzia, 1960. urtean berridatzi nuen polizia eleberria *Gauaz Ibiltzen* dana 66. urtean argitaratu zen; 1961 urtean *Aldjezairia askatuta* Algeriako gerra ipuinak idatzi nituen eta *Eganen* hasi argitaratzen; azken aldizkari horretan eta *Gernikan* eman nituen nire lehen olerkiak.**

**Niretzako liburu garrantzitsua izan zen *Itzal Gorria* (1963. urtean idatzia), Eibarko euskaldun komunista baten bizitza eta bere buruaz hiltzea, kontatzen nuen. Oraingo kritika gazteek eta antologiek diote, Saizarbitoria eta Atxaga baino lehen, ez zela euskal literaturan politika eleberririk idatzi. Jakina, Txomin Peillenen antzeko bigarren mailako idazlea ez dute inoiz irakurri ez eta egingo.**

**Juan Cruz Igerabide, ipuinen aditua omen denak eta gure Euskaltzaindiako literatura batzordearen Literatura terminoen hiztegian Ipuin artikulua idazleak esan zidan ez nuela inoiz ipuinik idatzi, 85en zerrenda bidali nion, baina ez zen iritziz aldatu. Hori ere zentsura forma berria da.**

**Literatura guztia euskaraz eman dut eta lau sari irabazi baina Lur entziklopediak euskal literaturaz argitaratu bi ale loditan, ez dago lerro bat ere Txomin Peillenez, halaber Iparraldeko euskal idazleez egin liburuan Karmelo Etxenagusiak, lerro bat ere ez. Azkenean, nekez eta batzuetan hamar urteez ezinez, euskaraz 19 titulu eman ditut literaturan (lau sari).**

**Euskaraz idatzi eta argitaratu ikerketak 20 ditut, gaztelaniaz bi eta frantsesez lau argitaratu.**

Garaiko idazle bizitzan berein jende gisako ezagutu ditut: Irigarai medikua, Arrue abokatua, Aresti, Etxaide, Ibinagabeitia, San Martin adiskideak, denak hilik. Oraindik bizirik nagoela dakite jende gehienek baina nola adinez ia fosila naizen euskaltzain emeritua pasatu naizenean Iparraldeko hedabide ezjakinek Euskaltzaindia uzten nuela eta nire lekua Xarles Videgaini ematen hedatu dute. Euskaltzainok emeritu ala ez domina bat daukagunean hil arte (nirea 7. domina) gordetzen dugu eta bost emeritu izan arren pentsiorik ez digute ematen. Orain Euskaltzaindian sartzen direnak gure dobleak dira (Videgain 30.garren domina).

Zerk izan duen eragina nigan idazleez bestalde? aita komunista izateak, biologia ikasketek, gaztelaniako lizentzia, gaztelaniako eta katalanezko literaturen ezagutza, Pariseko CNT ekoek antolatzen zituzten antzerki (Guimera), kantaldi (Paco Ibañez, Atahualpa Yupanqui), hitzaldietan (Lorca, Neruda). Bretoi hizkuntzazale batzuk lagun izan nituen eta etxean, gurasoek aipatzen ez ziguten euskal nazionalismoa eta abertzaleak ezagutarazi zizkidaten.

Ikerketa serioak egin ditut, baina literaturan lau eleberri umoristiko idazteak, euskal literatura hits eta tragikoan akatsa da eta mailaz jaisten zaitu. Bestalde, nire liburuak atzerri askotako herrietan kokatzen ditut, orain euskaldunek beren Euskal Herria eta Estatu Batuak aipatzea nahiago dute irakurri. Bestela fuera!

Gauza asko omen dakit esaten badidazue oroituko naiz zer dion gaztelaniak  
“El viejo diablo sabe mucho  
no por ser diablo sino viejo.

Agure guztien gisa lehenagoaz, antzinakoaz berba egin dezakegu, baina ni behintzat ez naiz aztia eta ez dakit zer bilakatuko den gure hizkuntza eta gure liburugintza. Euskaltzale bilakatu ninduen frantses liburu bat Onésime Reclusek 1855. urtean argitaratuan, geografo horrek zion euskarak ez zuela hogeigarren mendea ikusiko eta gure hizkuntzak ez zuela literaturarik izan, halaber pentsatzen zuen Julien Vinson euskalariak baina aitortu behar da, bi atoei ez zitzaizela gure mundu klerikala gogoko.

Orainak egiten baitu geroa Iparraldez ez naiz gehiegi fidatzen. Parisetik Euskal Herrira bizitzera itzuli nintzenean, harridura eta etsipen handia eman zidaten euskaldun zaharrek. Behin, euskal filologiaren sortzeko bilera guztian Pariseko hiru euskaldun berriek euskaraz hitz egin genuen eta hiru euskaldun zaharrek frantsesez. Oraindik badugu Euskaltzaindian osoko bilkuran euskaraz bakarrik hitz egiten duten euskaldun zaharrik eta maiz, mahaian erdarara lerratzen, bidean erdaraz, badirudi zelanbait geroago eta gehiago gure hizkuntzan egitea kostatzen zaielako. Beste Iparraldeko euskaltzale zahar batzuk frantsesez zuzentzen zaizkidanean, erantzuten diet euskara ulertzen dudala.

Euskararen ez berba egiteak kezkatzen nau, ezen hegoaldean ere horrelakoak dakitenekin gertatu baitzaizkit: behin euskaraz Curriculumari buruz euskaraz egin bilera baten ondotik, bazkari garaian, denak gaztelaniaz hitz egiten jarri ziren. Badakigu arraina burutik usteltzen dela eta Norbert Tauer txekiar euskaltzaleak Pragan 1968. urtean Pragan esan zidan “gure hizkuntza salbatu dugu, alemanari alemaneraz mintzatuz eta txekiarrekin txekieraz, beti”.

Eibarko alkatearen bandoan irakurri daiteke “euskara ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, baina dakitenek ez dutelako hitz egiten.” Hori idatzi eta gero bazkari batean gipuzkoar euskaltzain “euskaldun zahar” gazte bat eta bizkaitar bat gaztelaniaz jasan ditut.

Zer esanik Iparraldeko abertzale prentsan, aldizkaritxo bakoitzak gehienik euskaraz %10 darabil. Gazte denboran gomutatzen naiz nola Pariseko Euzko Deyan 32 orrialdearik bat euskaraz zela eta egoerak jarraitzen du erdi analfabeto den herri honetan. Diote ezin dela beste gisaz egin, nahiz *Zubiak* izeneko EAren aldizkariak, azken hiru urteetan, nire aholkuz, erdia euskaraz eman. Zoritxarrez, Iparraldean euskaldun nekazarien eta abertzaleen bilera guztiak frantsesez ematen dira.

Aztia izan gabe iragarri dezakegu XXI. mendearen azkenean euskara oraindik, agian, hinki-hanka bizirik iraungo duela.

## ETNOLOGIAZ

*Metodoak.* Van Gennep, Maus eta Barandiaran irakurriz ikasi nuen baina praktikan zebiltzan Parisen batik bat herri medikuntzaz arduratzen zen talde batekin ikastaldiak egin nituen eta eztabaida nagusia izan zen bertako hizkuntzak ikasi edo itzultzaile bat erabili.

Barandiarani eta Satrustegiri segituz nire ikerlan ia guztiak euskaraz eman ditut lekukoek hitzak ahal bezain hurbildik segituz; honela konturatu naiz euskaldun batek itaunari errazago erantzuten diola, sarritan erdara erabiltzen denean beren buruak zentsuratzen baitituzte.

Aurretik galdeketak prestatzen nituen, Barandiaranek oinarritzat harturik baina gai minbera batzuk gaineratuz. Gero, galdetzearekin desbideratzen baziren uzten nituen apur bat beren ideiak jarraitzen, horrela pentsatu gabeko galdera batzuei erantzuna bilduz. Ia beti, ongi ezagutzen nituen jendeekin egin ditut nire datu bilketak eta argitaratu baino lehen berriz irakurri.



Nire xedea zer zen? Herrian biltzea Zuberoan galtzera zihoazen jakituriak eta ondoko belaunaldiek horretaz zerbait jakin eta erabil zezaten. Zergatik Zuberoan? Hango hizketa hobekienik ezagutzen bainuen. Herri medikuntzaz argitaratua Leioako eskolan medikuek aztertu dutela jakiteak poztu nau.

## *Gaiak*

Onuragarri da ikerleak eremu berdinean lan egin dezan batik bat bertako hizketa ongi dakianean.

Zuberoaz dut gehienik idatzi *Animismua Zuberoan* (AEB, Donostia) Santa Grazi herrian bildu nituen sinesteak eta galdu zirenak aztertuz.

*Allande Elixagarai ligiarraren istoriak* (AEB) Ezteietan bere ipuinak kontatzera gonbidatzen zuten nire lehengusu horrengandik bildu nituen, gero konturatu euskal senekoak bazirela, soldadutzan ikasiak, beste ehiztariengandik entzunak, baita aztertu zer mintza tankera zerabilen kontalariak.

*Paristar euskaldun bat* (AEB.) Ezkontzaraino nola egin nintzen euskaldun eta nola iraun ezkontza urteraino etnologia galdeketa bati erantzunaz.

*Herri medikuntza.* (Barandiaran fundazioa). Dirurik ez eta Anuario de Eusko Folklore 1995-1996 bete nuen. Liburu horretan galdeketa antolatu nuen ahalik eta Gizarte Segurantzara jarri arte etxeetan nola sendatzen ziren (berriemaileek, 25, 60, 70, 82, 84 urteak zituzten), bigarrenik sendabelar jakitunari galdetu eta ehun eta hirurogei bat landareren izenak eman latinez, euskaraz, eta euskara batuan bakoitzaren kimika konposaketa eman nituen; gero larruko gaitz sendatzaile petrikiloei eta hezur zuzentzailerari itaunketak egin. Beste kapitulu batean XVI. mendean hasita (Zalgize) idatzi aipamenak bildu: atsotitzak, eliza liburuetakoa aholkuak XVII. mendean, XVIII. mendeko Ihautiri komedietan 45 bertso, Alberto Magnoren errezetak zubereraz mende horretakoak, XIX. mendeko senda belarrak. Beste kapitulu batean hidroterapiak aipatu.

Ahalaz saiatu naiz ikusten zenbateraino liburuetakoa jakituriak herrira igaro diren, finkatu ala galdu. Espainolen eta alemanen eragina, eta biarnes auzoekin urruntasuna ikusi, XVII-XVIII. mendeetan gaztelaniatik itzuli baitziren *saludador* delakoen liburuxkak eta hemeretzigarren mende azkenean baserrietan banatu zen sendabelarren liburuxkan, Althabegoiti apezak Kneipp alemanaren idazkiak erabili zituen.

*Ehiza eta zepoka Zuberoako Basaburuan* (B.F.)

Hau, Barandiaran Fundazioak liburu batean eman zuen. Ehiztari bakoitzari bere famaren arabera, bi ehizei buruzkoak galdetu nizkien. Usoen eta txorien ehizaz, basurde eta orkatzen galdeketarik; kasu horietan ez nuen ez sineste, ez teknika berririk ikasi euskaraz zelan esaten diren baizik, baita zergatik lehenak hegaztiak desagertzen diren eta bigarrenak basurde eta orkatzak ugaritzenegi.

Jakingarriago izan zen ehiza txikien larruak zepokatzen eta saltzen ibili zen lehengusu batek luzaro kontatu zizkidanak: lepazuri, lepahori, azkonara, erbinudea eta beste nola bizi eta nola atzeman zitezkeen.

Eta jakingarriena hartz ehizaz ikasi nituenak, hor zer nahi sineste eta gertaera kontatu baitzidaten. Nola ez den hartza ehiza etsaiak baizik; hil baino lehen otoiztu behar dela (ez egiteak zoritxarrak dakartza); hil eta lau atzaparrak moztu eta banatu, larrua kendu eta haragia ur hotzean astebetetz malgutu ondoren jaten dela, larrua eta burua kendu ondoren giza itxura duela. Ehiztari ez zen etxeko zaharrak gaineratu, hartzak, basagizona eman duela eta basa gizonak gizona. Sineste hori hartz dagoen lurralde askotan bildu da eta hamargarren mendean Alemanian (Saxo Gramaticus), hamalauan Biarnon (Kamar ed Din), beraz Santa Graziko lekukotan bakarra bermatzen dutenak.

Sineste hortik dator bahitu printzesaren ipuina pirineo osoan kontatzen eta kantatzen dena (Harzkume Lapurdin, Harxko Garazin, Hartz seme Zuberoan, Hilh d'Ors, Biarnon) Hartza, antzina, aizkora batekin hiltzeaz ipuinak bildu (Satrustegik horrelakoa bildu zuen Nafarroan)

Otsoak Zuberoatik XIX. mendean galdu zirelako, orduko eta XVIII. mendeko euskal testuak aztertu nituen, baina nahiz euskaldun deitura izan Otsoa eta izen Otxanda ez dut inolako sinesterik bildu. Amak haurtzaroan otso zahar ezindua, lotsatia, ikusi zuela eta artzaintsa zegoen neska batek bere eskalanproin eta makilaz ohildu.

## **ETNOLOGIATIK KANPO**

Gero hamar bat artikulutan eman inkestak, euskaldunez, erbesteko Euskal etxeez, amerindiarrez, eta magrebitarrez

Biologiaren irakasteaz pedagogia ikerketa *Bizidunak, haurren eta helduen heziketan* Mensajerok Ortzadar bilduman emana.

*Biziaren hiztegi* (Tesia, 2008 Euskaltzaindiak)). Ez dakit zergatik botanista egin nauten eta nire tesia ez da botanikaz, ez eta beste lezoar astakilo batek idatzi bezala bildu nituen eta lotan dagozan, argitara ezinez, XVII. mendeko Dassanzaren albaitari idazkiak.

Jusef Egiategi hemezortzigarren mendeko zuberotar filosofoaren *Filososfo hüksaldünaren ekeia*, Lehen libürüa, Euskaltzaindiak argitaratu zidan.

Filologia eta linguistikaz bi liburu frantsesez eta hamar bat Jon Mirandez lehen antologia eta biografia *Jon Miranderen idazlan hautatuak*. Eta beste liburu batzuk.

Zertan ari naizen galdetu didazue? Lotan dauzkadan liburuak argitaratu nahiz; amaigabeko ibaia utzi beharrez bukatzen dudala gaztelaniaz liburu bat *El imaginario en las creencias populares y cultas* euskal sinestetarik abiatuz, mundu zabaleko guztiak eta batik bat nire ibileretan ikusiak aztertuz. Aurten nire 60 urte burua, euskaraz idazten hasi nintzela betetzeak ez nau gaztetzen eta gure garai neketarik honuntz euskararentzat eman indar eta urratsek itxaropen apur bat ematen didate burua on dudano jarraitzeko.